Hernaniko Udala

2018/00001410 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Hernanin, 2018/09/24,

2018ko uztailaren 27an alkatetza dekretu bidez, Hernaniko udala eta Club Deportivo Hernani elkartearen arteko atletismo pista eta haren instalazioak erabiltzeari buruzko elkarlanaren hitzarmenari, behin behineko onarpena eman zion.

2018ko abuztuaren 22an akordio hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean publikatu zen.

2018ko irailaren 6an alegazioak aurkezteko data bukatu zen. Ez zen alegaziorik jaso.

Eman zaizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

**ERABAKI DUT:**

**Lehengo:** Hernaniko udala eta Club Deportivo Hernani elkartearen arteko atletismo pista eta haren instalazioak erabiltzeari buruzko elkarlanaren hitzarmenari, behin betiko onarpena ematea.

**Bigarren:** Behi betiko onarpenarekin batera diru-laguntzaren %60a ordaintzea, hau da, 1.992,00€ ordaintzea, hitzarmenaren seigarren espipulazioan jasotakoaren arabera (AD:957-2018).

Luix Intxauspe Arozamena Alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Arantza Arrazola Iturbe udal idazkari-ordea naizenez, ziurtatu egin dut.- Sinatua: alkatea . Sinatua: udal idazkari-ordea.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berariazko egintza horren aurka **administrazioarekiko auzi-errekurtsoa** aurkez dezakezu(e)la **Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean**, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, **berraztertzeko errekurtsoa** aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berariazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita **hilabeteko** epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulu eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki iritzitako egintza edo errekurtsoak aurkeztearen kalterik gabe.

Udal idazkariordea
2018/09/24

HERNANIKO UDALA
Hernaniko Udala

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus

HERNANIKO UDALA

FONDO KONTUHARTZAILETZA

# Aurrekontu Kontabilitatea

C

1

```
 AAA  DDDD
A   A D   D
AAAAA D   D
A   A D   D
A   A DDDD
```

| Aurrekontua | Departamentua |
|---|---|
| 2018 | OROKORRA |

| 1. Dok. Erref. | | Data | Zenbatekoa |
|---|---|---|---|
| AD | 957-2018 | 16-07-2018 | 3.320,00 |
| 2. Dok. Erref. | | Data | Zenbatekoa |
| | | | |

*Partida*

1 02.481.03.341.00 2018 4569 DIRULAG.ZUZENA-KLUBAK

*Azalpena* CDH-ATLETISMO-HITZARMENA 2018

| Interesatua | I.F.K. | IK |
|---|---|---|
| CLUB DEPORTIVO HERNANI "ATLETISMO" | G20188520 | 5300 |

*Kontabilitate Zerbitzua*

D01301

I49950